

ezagutzen al duzu Donostia?

Saldias

1905. urtean adminis-
trazio militarrek egindako
plano topografiko batzue-
tan, ondoko izen hau
agertzen da Mirakontxa
azpian, hondartzako tun-
ela baino lehen espaloiak
dituen bi zabaluneen arte-
an: «*Rincón de Zaldisco*».
Nondik dator izen hau?
Bada, zalantzarik gabe,
Saldias deitzen zen etxe-
tik.

Saldias Lugaritz auzo-
ari zegokion eta gaur
Mirakontxa pasealekuko
28 eta 29 zenbakiak
dagozkien etxeek okupa-
tzen dituzte Saldias Zaha-
rreko orubeak. Hortik
dator Saldiasko azpikalde-
an kostan dagoen bazter
honen izena. Saldias
Zahar hura kare-lantegi
bat zen eta garai haietako
lantegi izenena moda
jarrainuz «*Fabrica de cal
hidráulica La Fe*» deitu
zioten. Txillardegik bere
«*Antigua 1900*» liburu
mardulean agertzen ditu
fabrika honen historia eta
bertako argazki ezin hobe-
ak. Mirakontxa eta Alda-
peta lotzen dituen paseale-
kuari «*La Fe*» izena jarri
zioten ofizialki. Saldias
izena ahaztuz, eta ondoren
«*Fedearen pasealekua*»
itzuli da eta noski, bistan
da «*Fedearekin*» ez duela
ezer ikusi behar!.

Dena dela Saldias
toponimoak irauten du
oraindik leku honetan.
Amara-Goiako era Lugarit-
zeko pertsona bakan
batzuek deitzen diote gaur



Argazkia: Roxali Fernandez

«Saldiasko zokoa Kontxako hondartza bertatik hartua»

ere «*Saldiasko aldapa*»
ofizialki «*Fedearen pasea-
lekua*» denari. Amara
Goiako baserri batean

kontatu zidaten nola
beraiek «*kalera gurdiare-
kin jaitsi eta igotzen ziren-
Saldiasko aldapatik*»

orain dela 50 urte!

JOSU TELLARIDE

Donostiako kantutegia



J.I. ANSORENAK proposatua

Andre maistra bat

Andre maistra bat dago kontatzen
Noeren dilubioa,
nola bialdu zuen kanpora
Noek aurkako usoa.
Baina ikusten du neska koskor bat
jostaketan dabilela,

ta errieta bat bota ta gero,
galdetu dio honela:
«zer bialdu du Noek arkatik
pasa danean euria?»
Ta erantzun dio neskek korrika:
«Arkakuso bat, andrea»

Aspaldi azaldu ziren hementxe bertan Serafin Barojak (1840-1912)
jarritako beste ziri bertsoak. Hau ere tankeratsukoa da, garai batean oso
gustatuak ziren txisteen modukoa. Ez diot musikarik ezagutzen.